

Donostia defendatuz anuncia mobilizaciones para denunciar la política urbanística de Donostia

DONOSTIA DEFENDATUZ :: 29/02/2024

[Eusk/Cast] Donostia Defendatuz, formada por diversas asociaciones vecinales y movimientos sociales de la ciudad, quiere denunciar una serie de graves actuaciones municipales de los últimos meses

[Euskara]

Hiriko hainbat auzo-elkartek eta gizarte-mugimenduk osatzen duten Donostia Defendatuz koordinadorak Udalaren azken hilabeteetako hainbat jarduera larri salatu nahi ditu. Hori dela eta, Udal gobernuko arduradunei jendaurreko agerraldi publikoa egin dezatela eskatu eta herritarrei datozen aste eta hilabeteetako mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten diegu. Donostiako gaur egungo hiri ereduak gutxiengo batzuei mesede egitea du norabidetzat; gehiengoaren bizi baldintzak, ordea, zenbait sektore pribilegiaturen etekinen arabera gibelatzen dira. Udal Gobernuak espekulazioarekin, turismoarekin eta luxuarekin negozioa egiten duten jardueren alde hartutako erabakiak bata bestearen atzetik datoz, hiria turistifikazio prozesu basatian murgilduz, etxebizitza larrialdia areagotuz eta herritarrak beren auzoetatik kanporatuz, hiriko ondare arkitektonikoa eta naturala desaginez, gunek berdeak txikituz, merkataritza txikia itoz, eta hiriko ehun soziokulturala galduz. Politika horren ondorioak gero eta larriagoak dira eta donostiarron gehiengoak pairatzen ditu egunero egunero. Gure hiria gero eta bizi-ezinagoa bihurtzen ari da.

Ildo honetan, donostiarron beharrekin zerikusirik ez duten hainbat proiektu eta operazio urbanistiko bultzatzen eta inposatzen ari direla salatzen dugu, interes orokorrari eta herritarren ahotsari muzin eginda:

- Basque Culinary Centerren bigarren eraikina eraikitzen hastea, Manteo parkea suntsituta. Inposaketa autoritario horri gehitzen zaio udal lurzorua ondare garrantzitsu bat unibertsitate pribatu bati lagatzeari.
- San Bartolome muinoan merkatal-gune erraldoia jartzeko proiektua, lurrazpiko 4 solairuko aparkalekuarekin.
- Eraikin historiko esanguratsu eta bereizgarri (Arte Ederren Antzokia, Atotxako Geltokia eta abar) babesik gabe uztea eta eraistea.
- Etxebizitza legean jasotako baldintzetan Donostia gunek tentsionatu izendatzeko urratsik ez ematea. Funts putreak hiritik botatzeko neurriak ez hartzea.
- Hotelen irekieraren sustapen neurrigabea, Nobu hotelaren arau hausteekin Udalaren konplizitatea, Basquepackers (Arriola kalea) hostelaren irregulartasunen ikuskapen eza, Koisi (Heriz)

hostelak bizilagunei eragindako arazoen betikotzea.

- Igeldon Xabi Alonsoren txaletaren kasuan trikimailu legalen bidez arauak hautsi dituen aldearekin Udala aktiboki lerrokatzea.

- Belartzako landa gunearen berreskurapena agindu duten epaiak ez betetzea eta eremu hori betirako suntsitzea dakarten on line merkataritzako multinazionalentzako makro-poligono logistikoaren eta hotel berriaren Belartza2 izeneko egitasmoaren sustapena.

- Hirian hain urria den lurzoru naturala, berdeguneak eta zuhaitzak suntsitu eta artifizializatzea. Adibidez, sur-park proiektuak Antondegi inguruarentzat dakarren mehatxua.

- Metro-pasantearen proiektu zentzugabea bultzatzea, eta bide batez egitasmo horrek Dbus-en izango

dituen ondorio kaltegarriak eta obrak eragin dituen diru-xahuketa, segurtasun-fallta eta espazio publikoari nahiz bizilagunei eragindako kalteak ezkutatzea.

- Etxebizitza berrien eraikuntza sustatzean alokairu sozialaren eskaintza legezko gutxienekoetara mugatzea eta etxebizitza espekulatiboari lehentasuna ematea.

- Donostiako hirigintza berrantolatu behar duen Plan Orokor berria arrazoirik gabe atzeratzea.

- Emisio Gutxiko Eremua kilometro karratu txiki batera mugatzea, eremu turistikoan. Hiriko trafikoa erabat baldintzatzen duten lurpeko aparkalekuak murrizteko neurririk ez hartzea.

- Alokairu turistikoko pisuen erregulazio ez-eraginkorra eta ikuskapenik eza. Araudi berriaren

aurreko pisu turistikoaren kopurua gainditzea eta eremu saturatuenak are gehiago saturatzea ahalbidetu duen arauarekin egoskortzea. Etxebizitza negozioa egiteko erabiltzen dutenen interesak lehenestea, gehiengoaren beharraren aurretik, etxebizitza larrialdia bizi duen hirian.

- Udalak hiriaren elitizazio-estrategiarekin duen konplizitatea, inbertsiogileek hiria bereganatzea erraztuz, luxuzko etxebizitza, turismoa, merkataritza eta ostalaritzarekin aberastuz. Negozio pribatuak interes orokorrekoak balira bezala mozorrotzen dira, eta aurrekontu publikoaren bidez laguntzen zaie.

- Zuhaitzei buruzko Plan Zuzentzailea idazteko opakotasuna eta atzerapen ulertezina, ale osasuntsuak mozten diren bitartean. Azken-aurrekoa, Errondo pasealekuan.

- Hondakinen kudeaketa txarra, Donostiako hondakinen bereizketa-tasa Gipuzkoako okerreana da.

Donostia Defendatuzen ustez, jarduera kaltegarri hauek denak Udal Gobernuaren politika iraunkorraren erakusgarri dira. Alegia, ez dira arazo puntualak, baizik eta hirian nozitzen dugun arazo orokor eta endemiko baten ondorio eta adibideak. Aurrekontu publikoa eta udal erakundeak sistematikoki interes ekonomiko partikularren alde jarritz, Donostia modu arriskutsu eta atzeraezinean saldu nahi dutenaren erakusle dira.

Horregatik guztiagatik, Donostia Defendatuz koordinadorak:

- Hirigintza zinegotziari, Ekologia zinegotziari eta alkateari eskatzen die agerraldi publikoa egin dezatela herritarren aurrean, hiri-ereduaren inguruan dituzten kezkei erantzuteko eta erakundeetako arduradunek hartutako erabakien gaineko azalpenak eman ditzaten.
- Donostiar guztiak gonbidatzen ditu hiri-eredu honen aurkako ekimen eta mobilizazioetan aktiboki parte hartzera. Herritarren bizitzak erdigunean jarriko dituen hiri-ereduaren alde egiten dugu, eta ez dugu onartzen gure hiriarekin egiten ari direna, asko baita jokoan duguna. Donostia ez dago salgai!

[Castellano]

LA COORDINADORA DONOSTIA DEFENDATUZ ANUNCIA MOVILIZACIONES PARA DENUNCIAR LA POLÍTICA URBANÍSTICA DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA

La coordinadora Donostia Defendatuz, formada por diversas asociaciones vecinales y movimientos sociales de la ciudad, quiere denunciar una serie de graves actuaciones municipales de los últimos meses. Por ello, emplazamos a los responsables del Gobierno municipal a comparecer públicamente y animamos a las y los donostiarras a participar en las movilizaciones de las próximas semanas y meses. El actual modelo de ciudad de Donostia se orienta hacia el beneficio de una minoría; las condiciones de vida de la mayoría quedan relegadas en beneficio de los sectores más privilegiados. Las decisiones tomadas por el Gobierno Municipal a favor de los negocios de especulación, turismo y lujo se toman una tras otra, mientras la ciudad entra en un proceso salvaje de turistificación, aumenta la emergencia habitacional, expulsa a las y los vecinos de sus barrios, destruye patrimonio arquitectónico y natural, reduce las zonas verdes, pierde pequeño comercio y afecta al tejido sociocultural de la ciudad. Las consecuencias de estas políticas son cada vez más graves y las sufre la mayoría de las y los donostiarras día a día. Nuestra ciudad se está haciendo cada vez más inhabitable.

En este sentido, denunciaremos que se están comprometiendo e imponiendo diversos proyectos y operaciones urbanísticas que no tienen nada que ver con las necesidades de las y los donostiarras, ignorando el interés general y la voz de la ciudadanía:

- El inicio de la construcción del segundo edificio del Basque Culinary Center, con la destrucción del Parque de Manteo. Este acto de imposición autoritaria se añade a la cesión de un importante patrimonio de suelo municipal a una universidad privada.
- El proyecto de centro comercial en el cerro de San Bartolomé, con aparcamiento subterráneo de 4 plantas.
- La desprotección y derribo de edificios históricos emblemáticos y

singulares como el Teatro Bellas Artes, la Estación del Norte, etc.

- No dar pasos para la declaración de Donostia como zona tensionada en los términos previstos en la ley de vivienda. No tomar medidas para expulsar de la ciudad los fondos buitres.

- La promoción desmesurada de la apertura de hoteles y la complicidad municipal con las infracciones del Hotel Nobu, la falta de inspección de las irregularidades del hostel Basquepackers (Arriola), la perpetuación de las molestias del hostel Koisi (Heriz).

- En el caso del chalet de Xabi Alonso en Igeldo, alinearse activamente con la parte infractora mediante trucos legales.

- El incumplimiento de sentencias que obligan a la restauración de la zona rural de Belartza y la promoción del macro-parque logístico para multinacionales del comercio online acompañado de un nuevo hotel que supone la destrucción completa de la zona.

- La destrucción y artificialización del suelo natural, zonas verdes y arbolado tan escaso en la ciudad. Por ejemplo, la amenaza que supone el proyecto de surf-park en el entorno de Antondegi.

- Impulsar el insensato proyecto de la pasante de metro, ocultando a su vez el impacto negativo

del proyecto en la compañía municipal Dbus, el despilfarro económico, la inseguridad y los daños provocados por la obra tanto en el espacio público como a las y los vecinos durante su construcción.

- Limitar la oferta de alquiler social en la promoción de nuevas construcciones a mínimos legales y dar prioridad a la vivienda especulativa.

- El retraso injustificado del nuevo Plan General que debe reordenar el urbanismo de Donostia.

- Delimitación insuficiente de la Zona de Bajas emisiones a un escaso kilómetro cuadrado situado en la zona turística. Falta de medidas para poner límites a los aparcamientos subterráneos que condicionan totalmente el tráfico urbano.

- Regulación ineficaz de pisos de alquiler turístico y falta de inspección. Obcecarse en la norma que ha

permitido superar la cantidad de pisos turísticos anterior a la nueva normativa y saturar aún más las zonas más saturadas. Se anteponen los intereses de quienes utilizan la vivienda para hacer negocio a la necesidad de la mayoría en una ciudad que vive una emergencia de vivienda.

- Complicidad municipal con la estrategia de elitización de la ciudad, facilitando la apropiación de la ciudad por parte de los inversores que se enriquecen con la vivienda, el turismo, el comercio y la hostelería de lujo. Se disfrazan negocios privados como si fueran de interés general y se colabora con presupuesto público.

- Opacidad y retraso inexplicable en la redacción del Plan Director del arbolado mientras las talas de ejemplares sanos continúan. La penúltima, en el Paseo de Errondo

- Mala gestión de los residuos haciendo de la tasa de separación de residuos de Donostia la peor de todo Gipuzkoa.

Para Donostia Defendatuz, todas estas actuaciones son una muestra de la política permanente del Gobierno Municipal. Es decir, no se trata de problemas puntuales, sino que son consecuencia y ejemplos de un problema general y endémico que padecemos en la ciudad. El presupuesto público y las instituciones municipales se orientan sistemáticamente a favor de los intereses económicos particulares; lo cual demuestra que quieren vender Donostia de forma peligrosa e irreversible.

Por todo ello, desde la coordinadora Donostia Defendatuz:

- Pide a la concejala de Urbanismo, la concejala de Ecología y al alcalde que comparezcan públicamente ante la ciudadanía, para contestar a sus preguntas e inquietudes en relación al modelo de ciudad y para que las y los responsables institucionales rindan cuentas de las decisiones adoptadas.

- Invita a los y las donostiarras participar activamente en las iniciativas y movilizaciones contra este modelo de ciudad. Apostamos por un modelo de ciudad que ponga en el centro las vidas de las vecinas y vecinos, y no aceptamos lo que se está haciendo con nuestra ciudad, porque nos jugamos mucho. ¡Donostia no se vende!

Atxikitako erakundeak / Organizaciones adheridas

1. Altza XXI herri ekimena
2. Amara Bai auzo elkarte
3. Ancora
4. Añorga Txikitarrek auzo elkarte
5. Ba Gera
6. Belartza 2 Gelditu
7. Bidebieta auzo elkarte "Bideak"
8. Bizilagunekin
9. CCOO sindikatua
10. CNT Gipuzkoa
11. Dendarlean
12. Donostia Bizirik
13. Egia Bizirik Auzo Elkarte
14. Eguzki
15. Erdian Bizi auzo elkarte
16. Errausketaren aurkako mugimendua
17. ESK sindikatua
18. Haritzalde
19. Heriz plataforma
20. Herria kultur elkarte
21. IZBE Intxaurreko Zaharreko Bizilagun Elkarte
22. Kaleratzeak Stop Desahucios Donostialdea
23. Kontenedora
24. LAB sindikatua
25. Ondare SS
26. Osteguna Elkarte / AA.VV. Osteguna

27. Parkea Bizirik
28. Satorralaia
29. SOS Manteo
30. Steilas sindikatua
31. Uliako Auzo Elkarte
32. Uliako Lore Baratza

<https://eh.lahaine.org/donostia-defendatuz-anuncia-movilizaciones-para>